

SEGMENTAZIOA

Segmentazioa produktu edo zerbitzu bat eros dezaketen pertsonak taldeetan banatzea da, antzeko behar, gustu edo jokabideak dituztelako. Horrela, enpresek talde bakoitzarentzat estrategia egokiagoak prestatzen dituzte, eta horrek salmentak handitzen laguntzen du. LIMU bereziki etxe txikien jabeentzat sortuta dago; adibidez, gazteentzat, familia zaurgarrientzat edo bakarrik bizi diren pertsonentzat. Hala ere, horrek ez du esan nahi etxe handiagoak dituzten pertsonak edo bestelako bezeroek ezin dutenik erosi. Edonork du erosteko aukera, etxe tamaina guztietara egokitutako altzariak egin ditzakegulako.